



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 5a

12. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak toki mapa arrazionalizatzeko aldera hartuko dituen neurri zehatzei eta haien plangintza eta egutegiari buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da N-121-C eta NA-6840 errepedeen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiazten da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaion. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen errepikagailu berriak jartzeko, Gobernuak kudeatzen duen telebista seinaleen berrigorailuen sarean ezarritakoez gain, interneteko banda zabala ezartze aldera, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, 2002-2009 urteetarako errepedeei buruzko II. plan zuzendariari buruzkoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (9. or.).
- Galdera, iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzangoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (9. or.).

- Galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterlanei eta arlo horretan aplikatzen ari diren esku-hartze sozialeko neurriei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko Gobernuaren ustez noiz egonen den abian Cortesek Moncayoko Uren Mankomunitatetik ur-hornidura jaso ahal izateko azpiegitura, Ana Figueras Castellano andreak egina (11. or.).
- Galdera, Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuak Bortzirietan dituen akatsei buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen III. tarteaz izandako luizien arrazoiei buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak uztailaren 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Nafarroako Gobernuak toki mapa arrazionalizatze aldera hartuko dituen neurri zehatzei eta haien plangintza eta egutegiari buruzkoa.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak toki mapa arrazionalizatze aldera hartuko dituen neurri zehatzei eta haien plangintza eta egutegiari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran eztabaidatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 179. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak, inbestidura eztabaidan, honakoa adierazi zuen hitzez hitz: "Nafarroako toki garapenari bulkada berria emanen diogu, administrazioaren dezentrazio-

aren printzipio konstituzionalak abiapuntu betiere, udalei gastu publikoaren ehuneko handiagoa emanez, toki autogobernuaren gaitasunak indartuz eta toki administrazioaren tarteko maila berrantolatuz". Hitzok, zeinek itxuraz erakunde eremuan irmo eragiteko asmoa baitute, orain arte txarki tratatu den eremua, sarritan errepikatu ohi dira inbestidura eztabaidetan; baina lau urteren ondotik, gobernuak joan eta gobernuak etorri, egungo toki maparen arrazionalizatzea, toki autonomiaren aitortzea eta toki administrazioen finantza-nahikotasuna utopia gisa agertzen dira.

Horregatik, ekimen ausartak bultzatu behar dira arazoari errotik heltzeko eta adabaki-politikak saihesteko, horiek ez baitute, idazkarien gaitze bereziaren kasuan bezala, arazo berriak besterik eragiten.

Honela, parlamentu-talde honek jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari azal dezan eta argitu dezan zer neurri zehatz hartu behar dituen, bai eta haien plangintza eta egutegia ere, toki mapa arrazionalizatzen saiatzeko, toki entitatei finantza-nahikotasuna emateko eta, egungo eskumen-banaketa berrikusiz, toki autonomian sakontzeko.

Iruñean, 2007ko irailaren 26an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-C eta NA-6840 errepedeen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan.**

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-C eta NA-6840 errepedeen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Tutera-Tarazona NA-121-C errepedearen eta Murchanten sartzeko NA-6840 errepedearen arteko bidegurutzea aldatzeko proiektuari buruz.

Zioen azalpena:

2007ko abuztuaren 20ko NAO (103. zk.), Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren abuztuaren 1eko 97/2007 Foru Agindua argitaratu zen, "Tutera-Tarazona NA-121-C errepedearen eta Murchanten sartzeko NA-6840 errepedearen arteko bidegurutzea erdiko bide bat eginez hobetzeko proiektua" behin-behinekoz onetsi zuena.

Bidegurutze hori beharrezkoa da, Murchantarako sarrerak noranzko bietakoa behar baitu, eta, era berean, NA-6840 errepedetik N-121-C errepedeaz bestaldean dagoen nekazaritza-gunera iritsi

ahal izateko; pasabide hori, bereziki, Murchanteko nekazariak erabiltzen dute egunero, nekazaritza lanak egiteko. Bidegurutze horretan, azken urteotan, istripu asko gertatu dira, eta zenbait hildako eta zauritu larri izan dira.

Bidegurutze hori arriskutsua dela jakinda, Nafarroako Gobernuaren Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak proiektu bat enkargatu du bidegurutze hori, bide zentral bat eginez, ez dadin hain arriskutsua izan.

Herri Lan Departamentuak behin-behinekoz onetsitako proiektuan proposatzen den aldaketak badirudike orain arteko arriskua gutxitu egiten duela, baina, hala ere, arretaz aztertuz gero, zenbait gauza nabarmenak dira, eta, horrela, erabile-berriak, arriskuak gutxitu beharrean, gehitu egiten ditu eta, beraz, ez da orain arte baino arrisku gutxiago izanen.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, bidegurutze horren arriskuaz jabetuta, babestu egiten du puntu horretatik egunero pasatzeak eragiten duen arriskuari erantzuteko eta hori konpontzeko ekimena, baina, hala ere, gu ezin gara ados egon, eta beraz ez gatoz bat, iragarri den aldaketaren irizpide teknikoekin. Horrenbestez, uste dugunez N-121-C errepedearen bidegurutzean istripuak ekiditeko proposatu den konponbidea ez dela egokiena, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beste proiektu bat idatz eta gauza dezan Tutera-Tarazona NA-121-C errepedearen eta Murchanten sartzeko NA-6840 errepedearen arteko bidegurutzea aldatzeko; hain zuzen ere, biribilgune itxi bat eraikiz eta ez bide zentral bat eginez. Biribilgune hori argizatua izanen da, eta behar diren seinaleez hornitua.

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

**Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten.**

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Toki entitateen autonomia eta finantzaketa da erakunde-egitura arrazoizkoagoa egiteari dagokionez legebiltzar honek presaz jorratu behar duen auzietako bat.

Edozein modutan ere, erkidegoko toki-mapak egoera hain konplexu eta anitzak dituenez egungo finantzaketa-sistemari dagokionez, funtsak bana-

tzeko aplikatzen diren irizpideak eta arau orokorrak ez datoz bat gorde beharreko justizia eta proportzionaltasun irizpideekin. Horren adibide dira errola osatzen duten herritarrei baino herritar gehiagori zerbitzua ematen dieten udalak, Nafarroako Gobernuak errodaren arabera ematen baititu zenbait baliabide.

Erkidegoko udal batzuek herritar gutxiago izan ohi dituzten beste udal batzuetako herritarrei ematen dizkiete zerbitzuak, eta hori kontuan hartu beharra dago funtsen banaketa zuzen egiteko. Iruñean, esaterako, "hiriburutza agiria" izenekoaren bidez orekatzen da egoera; parlamentu-talde honen ustez, ordea, beharrezkoa da, desberdintasunak desberdintasun, antzeko egoeran dauden beste herri batzuei ere zabaltzea aitortza hori.

Halatan, gure ustez, presako azterlan bat egin behar da, aipatu herrien egoera aztertuko duena, funtsen banaketa arrazoizkoagoa egiteko arlo horretan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen du azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten, parte hartzeko funtsa banatzeko formulatan kontuan hartua izan dadin, eta, kasua bada, egungo formulak alda daitezzen.

2. Azterlan hori legebiltzar honetan aurkeztu eta eztabaidatuko da.

Iruñean, 2007ko irailaren 25ean

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 autobidearen erabiltzaile-txartela erabiltzaileentzako kosturik gabe berritu dezan eta etxera bidal diezaien.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

#### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Herri Lan Batzordean:

Zioen azalpena:

A-15 autobideko erabiltzaile-txartela berritzeko jakinarazpena jaso dut etxean. Aurten bada berrikuntzarik: txartel hori Audenasako bulegoetan jaso behar dut edo, bestela, behin denbora bat pasatuta, etxera bidaliko didate, hiru euroren truke.

Modu honetan, txartel hori berritzeko baldintzak okerragoak dira Iruñetik kanpo bizi garenontzat eta, gure ustez, zerbitzu horren berritzea orain arte bezala egin behar da, hau da, kosturik gabe eta txartel berria etxera bidaliz. Horrenbestez, honako erabaki proposamena aurkeztu dut:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Audenasako akziodun garrantzitsua baita, A-15 autobidearen erabiltzaileei, orain arte bezala, erabiltzaile-txartela kosturik gabe berritu eta etxera bidal dakien.

Iruñean, 2007ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Herri Lan Batzordean:

Zioen azalpena:

Legebiltzar honetan, sarri askotan aritu gara, eta arrazoi askorengatik, Esako urtegia handitzeko

obrarri buruz. Azkenekoz, 2004an, nire parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat eztabaidatu eta bozkatzean.

Orduan, batetik, lanen segurtasunari buruzko txosten bat eginaraz zedin proposatu genuen, pitzadura handi bat agertu baitzen, eta, bestetik, uraren kultura berria izan genuen aipagai. Bazen garai hartan Zaragozako Unibertsitateak eginiko txosten bat gomendatzen zuena ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana egitea, ezkerreko mazelan luizi arazoak zeudelako.

Uneotan, Ingurumen Ministerioak berak baimendu du ikerketa geologikoaren proiektu bat lizitzatzea; prentsa agiri baten bidez jakinarazi zenez, horrek mazelen iragazkortasuna bermatuko du obren exekuzio fasean, eta, gainera, urtegiaren ustiaketa kontrolatzen lagunduko du.

Gai garrantzitsua denez eta inguruko jendea eta Esako obrek ukitutako jendea kezkatua dagoenez, bai eta gorago azaldu ditugunengatik ere, hona gure erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Esako urtegia handitzeko lanak gerarazteko eska dezan.

Iruñean, 2007ko irailaren 26an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen errepikagailu berriak jartzeko, Gobernuak kudeatzen duen telebista seinaleen berrigorgailuen sarean ezarritakoez gain, interneteko banda zabala ezartze aldera.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen errepikagailu berriak jartzeko, Gobernuak kudeatzen duen telebista seinaleen berrigorgailuen sarean ezarritakoez gain, interneteko banda zabala ezartze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran eztabaida dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Argi ikusi da Nafarroako Gobernuak ezartze bidean den landa-interneteko zerbitzua, oso fidagarria ez izateaz gain –erraz frogatu daiteke, sarritan gertatzen baita seinalerik batere gabe gelditzea, Bortzirietan irailaren 19tik 26ra gertatu den moduan–, ez dela gauza Interneteko balizko erabiltzaile guztiengana heltzeko; hau da, gure ustez, Nafarroako herritar ororengana, bizi diren lekua gorabehera. Internet abiadura-baldintza onargarrietan eskura ez izatea bazterkeria modu moderno bat da, Nafarroako zenbait landa-eremuri eragiten diona.

Aurreko legegintzaldian, Eusko Alkartasunako parlamentu-taldeak zenbait galdera egin zizkion

Nafarroako Gobernuari gai honi buruz. Nahiz eta Gobernuak Interneteko banda zabaleko zerbitzua hari gabeko teknologiaren bidez jartzeko asmo handiko planak zituen, ikusi da seinaleen berrigorgailuak Gobernuak kudeatutako telebista berrigorgailuetan soilik jarri zituztela. Horren ondorioa da telebista seinalea berrigorgailu horien bidez jasotzen ez duten herritar nafarrak zerbitzu hori gabe gelditu zirela. Hori da Bortzirietan gertatzen dena Fraineko seinalerik jasotzen ez duten lekuekin. Zenbait udalek, Etxalarako adibidez, Eusko Alkartasunako udal taldearen ekimenez, eskatu zuten zerbitzu hori osa zedila telebista toki-berrigorgailuetan ezar zitekeen berrigorgailu sare berri batekin. Horrela, zerbitzua leku gehiagotara heltzen zen. Behin eskakizun hori modu ofizialean eginda, 2007ko apirilean, egin dira probak sistema osagarri horrekin, baina zerbitzua ez da erabiltzaileen esku modu komertzialean jarri. Badakigu, adibidez, Etxalarren sistema osagarri hori oinarri duen antena bakarra Guardia Zibilarren kuartelean jarri dela, nahiz eta konponbidea nahi duten partikularrek ere eskaria egin duten.

Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Aurreikusitako al du Nafarroako Gobernuak seinale berrigorgailu berriak jarri eta horiekin osatzea Gobernuak kudeatzen dituen telebista-berrigorgailuen sarean ezarritakoak? Hala baldin bada, noiz izanen dira erabilgarri?

2.- Iberbandaren zerbitzua jarri behar den lekuetan, zer aurreikuspen dago seinalea ailega dakioken erabiltzaile kopuruari buruz? Zehatz bidez epeak, seinale-estaldura izanen duten herritarren ehunekoa eta zerbitzu mota (Internet edo Internet+telefonoa).

Iruñean, 2007ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, 2002-2009 urteetarako errepedeei buruzko II. plan zuzendariari buruzkoa.**

*JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, 2002-2009 urteetarako errepedeei buruzko II. plan zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Iragarri denez, legegintzaldi honetan Errepedeei buruzko III. plan zuzendaria izanen da Herri Lan Departamentuaren jarduketaren ardatza; hori horrela, honakoak jakin nahi nituzke:

Zein betetze-maila du 2002-2009 urteetarako errepedeei buruzko II. plan zuzendariak?

Errepedeei buruzko II. plan zuzendarian jasotako lanetatik zein egin dira? Zehatz bitez xehetasunez.

Errepedeei buruzko II. plan zuzendarian jasotako lanetatik, egin gabe dauden zerrenda zehatza eta zer egoeratan dauden gaur egun.

Iruñean, 2007ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: José María Vázquez Royo

## **Galdera, iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzaingoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzaingoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Emakume batek hilaren 15ean, larunbatarekin,

Gipuzkoa etorbidean izan zuen erasoari buruzko galdera; Foruzaingoak hartu zuen esku.

Esku hartzeko zer protokolo jarri zuen abian Foruzaingoak ziurtatzeko kasu zehatz honetan emakumeak izanen zuela informazioa, orientabidea eta aholkularitza juridikoa nahiz bestelakoa?

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

---

**Galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterlanei eta arlo horretan aplikatzen ari diren esku-hartze sozialeko neurriei buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Gaietako Departamentuak prostituzioari buruz dituen azterlanei eta arlo horretan aplikatzen ari diren esku-hartze sozialeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Prostituzioari buruzko galdera.

1. Zer azterlan kuantitatibo eta/edo kualitatibo ditu Gizarte Gaietarako Departamentuak Nafarroako prostituzioari buruz?

2. Esku-hartze sozialeko zer neurri ari da aplikatzen aipatutako departamentua sektore horretako beharrak identifikatzeko?

Iruñean, 2007ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, jakiteko Gobernuaren ustez noiz egonen den abian Cortesek Moncayoko Uren Mankomunitatetik ur-hornidura jaso ahal izateko azpiegitura.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Gobernuaren ustez noiz egonen den abian Cortesek Moncayoko Uren Mankomunitatetik ur-hornidura jaso ahal izateko azpiegitura.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Gobernuari, idatziz erantzuteko:

Gertakarien azalpena:

Prentsan behin eta berriz agertu eta salatu da Corteseko bizilagunek duten kezka herriko uraren kalitatea dela-eta.

Uneotan, herri horretako udalak Osasun Batzordea presaz bildu eta hala batzordekideei nola herritarrei jakinarazi die ez dezatela erabili iturriko ura gizakien kontsumorako.

Erabaki hori hartu da irailaren 18an eginiko azterlan baten emaitzak ezagutu ondoren, non abuztuan eginiko beste azterlan baten emaitzak berresten baitira, hau da, trihalometano mailak legeak baimendutakoak baino askozaz ere handiagoak direla.

Beraz, eta egoera hau Cortes herrian ez denez berria, eta Gobernuak gai honetan duen erantzukizuna ere funtsezkoa denez, honakoei erantzutea nahi dugu:

1.- Osasun-txostena ikusita, eta txostenak ere badirenez gomendatzen dutenak Corteseko ur-hornidura Moncayoko Uren Mankomunitatetik egitea, noiz iruditzen zaio Gobernuari egon daitekeela prest azpiegitura hori?

Iruñean, 2007ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuak Bortzirietan dituen akatsei buruzkoa.**

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa jaunak aurkeztutako galdera, Iberbanda banda zabaleko operadoreak ematen duen zerbitzuak Bortzirietan dituen akatsei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Prentsan argitaratu diren informazioen arabera, Iberbanda operadoreak Bortzirietan ematen duen banda zabaleko zerbitzuak akats larriak izan ditu irailaren 5etik hona. Horrek komunikatzeko eta zerbitzuak emateko arazoak ekarri dizkie partikularrei, taldeei, merkatariari eta erakundeei.

Bestalde, Iberbanda enpresak ez du argitzen, dirudenez, zer epetan konponduko duen behin betikoz arazoa.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

a) Ba al daki Nafarroako Gobernuak akatsak gertatzen ari direla Iberbandak ematen duen zerbitzuan?

b) Ba al daki Nafarroako Gobernuak zerk eragin duen zerbitzuak huts egitea Nafarroako eskualde horretan? Eta ba al daki noizko dagoen aurreikusita arazoa konponduta egotea?

c) Harremanik izan al du Nafarroako Gobernuak Iberbanda enpresarekin, arazoa konpontze aldera?

d) Zer egitea aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Nafarroako udal horietan bermatuta egon dadin banda zabaleko zerbitzu egokia?

e) Ireki al diezaioke Nafarroako Gobernuak zehapen-espediterik Iberbanda enpresari zerbitzua ematean behin eta berriz gertaturiko akatsengatik?

Era berean, jakin nahi dut zerbitzu hori Nafarroako Gobernuaren administrazio-emakida baten bidez ematen den. Eta, hala bada, ea emakidaren hartzailea ari ote den betetzen emakidaren baldintza teknikoak. Eta, betetzen ari bada, Nafarroako Gobernuak ez al duen uste baldintza tekniko horiek ez direla nahikoa zerbitzu hori modu egokian emateko.

Iruñean, 2007ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen III. tartean izandako luizien arrazoiei buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen III. tartean izandako luizien arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, edo dagokion departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Nafarroako Ubidearen III. tarteko mazela batean izandako luiziak zergatik gertatu dira? (Gertakari horri buruzko txosten teknikoak ere eskatzen ditugu, baldin badaude).

2. Zer kostu izan du mazela hori egonkortzea? Eta kostu hori enpresa eraikitzaileak hartuko du bere gain, bermearen barruan, ala Nafarroako Gobernuak? (Edonola dela ere, datu hori zehaztuta ageri den kontratua eskatzen dugu).

Iruñean, 2007ko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak uztailaren 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela-eta arartekoak uztailaren 11n eman zuen 103/2007 Ebazpenaren ondorioz Landa Garapeneko Departamentuak aurrera eraman behar dituen ekintzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko irailaren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko irailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano galdera egin du (PES 49/07) Ablitasko herritar batzuek aurkezturiko kexa dela eta. Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako informazioa:

Arartekoak ekainaren 11n 103/2007 ebazpena eman zuen, Ablitasko zenbait herritarrek aurkezturiko kexa zela eta. Departamentu honek entitate horri ondoren datorren erantzuna igorri dio, egindako galderari erantzuten diona; izan ere, ez gobernuak, ez departamentuak ez dute aurreikusirik arartekoak adierazitakoaz gainera ezer egi-  
tea:

“Uztailaren 11ko 103/2007 ebazpenari, eta zehazkiago 2. eta 4. puntuen edukari, erantzuteko, honakoa adierazi behar dut:

Gobernuak ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretua onetsi zuen ikusita une horretara arte indarra zuten lege xedapen batzuk betetzeko abeltzaintza ustiategi askok ikuspegi sozioekonomikotik zeuzkaten zailtasun larriak; zailtasunak bereziki larriak ziren abeltzaintza tradizio luzeko eremuetan, non ustiategietako titularrak, maiz, oso adintsuak ziren.

Dekretua onestea erabaki politiko bat izan zen. Gogoeta teknikoak egin ziren ingurumena babesteari buruz, eta gogoeta sozioekonomikoak ustiategi ugari bizirik irauteko moduari buruz. Erabaki politiko honen bidez, aukera eman da 1.013 abeltzaintza ustiategik aurrera jarrai dezaten; izan ere, horiek dira dekretuan aurreikusitako erregistroan izena eman zuten abeltzaintza ustiategiak.

Bestalde, dekretu hori erakunde profesional eta sindikalekin eginiko negoziazioaren eta lorturiko adostasunaren emaitza izan zen; horrenbestez, gobernuaren iritziz, ezin izanen litzateke aldatu haiek ados egon gabe; izan ere, horrek arazoak sortuko lituzke, abeltzain askorengan eragina izanen lukeelako.


Bukatzeko, edozein modutan ere, ez du ematen garrantzitsua denik aipatu foru dekretuko lehen xedapen iragankorreko bigarren lerrokada kentzea, zeren eta sortu zenetik 1.013 ustiategietatik hamar baizik ez baitira eskuz aldatu; horrenbestez, itxura guztien arabera, gehienbat gertatzen ari dena da ustiategiak eskualdatzeari utzi zaiola; horrenbestez, gobernuak ez du asmorik erakunde profesional eta sindikalekin dekretua aldatzeko negoziazioan hasteko, zeren eta nekazari gazteak instalatzeko laguntzak pizgarri bat baitira instalazio berri bideragarriak eta ingurumen arauak betetzen dituztenak sortzeko.

Horrenbestez, erantzun honetan ongi islaturik geratzen da gobernuaren eta departamentu honen jarduera, abeltzaintza ustiategien ohiko jarraipenaz eta kontrolaz gainerakoa.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduen 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko irailaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	